



# Aiarako Udala

## Ayuntamiento de Ayala

B° La Iglesia, nº 3 – 01476 ARESPALDITZA-AIARA

(ARABA)

Teléfono: 945399013 Fax: 945399331

Email: [info@aiarakoudala.eus](mailto:info@aiarakoudala.eus)

[www.aiarakoudala.eus](http://www.aiarakoudala.eus)

### PRESIDENTEA

Gentza Alamillo Udaeta jn.

### ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo Vadillo jn.

José Antonio Bartolomé Pesquera

jn.

Susana Martín Benavides and.

Montserrat Angulo Solloa and.

Lauren Uria Peña jn.

Nerea Goti Valle and.

Esteban Hernando Landa jn.

Iraida Saenz de Lafuente and.

Iratxe Parro Uzquiano and.

### AIARAKO UDALAK 2018ko UZTAILAREN 10ean

### EGINIKO EZOHIKO BILKURAREN AKTA

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamazortziko uztailaren hamarrean, zortziak eta hogeita hamasei direnean, Udalbatza Osoa bildu da ezohiko bilera egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz. Neuk, M<sup>a</sup> del Carmen Rojo Pitillas idazkari andreak, lagundu ditut.

### BERTARATU EZ DIRENAK

Josu Artetxe Arana jn.

### IDAZKARIA

M<sup>a</sup> del Carmen Rojo Pitillas and.

Alkate jaunak ongietorria egin die eta, besterik gabe, gai-zerrendan dauden puntuak eztabaidatu eta bozkatzeari ekin diote:

**1.- Onestea, hala badagokio, 2018ko ekainaren 25ean egindako ohiko bilkuraren akta.** Korporazioari 2018ko ekainaren 25eko ohiko osoko bilkuraren aktaren berri eman zaio.

Bertaratutako udalkideek aho batez onartu dute aipatutako akta.

**2.- Onestea, hala badagokio, 2018 ekitaldiko udal aurrekontua.**

**HONAKO HAU IKUSI DA.-** 2018 ekitaldirako aurrekontuari buruzko espedientea.

**KONTUAN HARTU DA.-** 2018ko maiatzaren 30ean egindako saioan Ogasuna, Funtzio Publikoa, Barne Erregimena eta Kontuak Informazio Batzordeak emandako aldeko ebazpena.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) esku hartu du honako hau oroitarazteko: bere taldeak aurkeztu zitzaizen proiektuari bi zuzenketa egiteko eskatu zuen, bata administrazio-batzarrak finantzatzen dituen partida igotzeari buruzkoa eta bigarrena administrazio-batzarren bideen garbiketa mekanikorako partida igotzeari bideratua, lan hori urtean bi aldiz egin ahal izateko. Azaldu du haiek proposatu zutela, besteak beste, zaindariaren jaiek sorrarazitako gastua murriztu ahal zela, gehiegizkoa iruditzen zaielako. Amaitzeko, adierazi du 2018 ekitaldirako udal aurrekontua onartzearen alde bozkatuko dutela, aurreko ekitaldiko likidaziotik datorren diruzaintzako soberakin likidoaren bidez batzar-administratiboan finantzazioa handitzeko konpromisoa dagoelako, eta bideei dagokienez ekitaldi honetako beharren analisia egiteko konpromisoa ere badagoelako, eta, kontratuei buruzko legeak ikusita, indarrean dagoen kontratua aldatzeko aukera legala aztertu ahal izateko.

Lauren Uria Peña zinegotzi jaunak (EH-BILDU) hitza hartu du eta adierazi du udal aurrekontua lehenago aurkeztu beharko litzatekeela, eta ardura gobernu taldearena dela, eta ez idazkaritzarena.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du ados dagoela, aurrekontuak lehenago ekarri beharko liratekeela, baina ezin da alde batera utzi udal idazkaritzako aldaketa-egoerak kontu askotan atzerapena sortu duela, aurrekontua haien artean.

Lauren Uria Peña zinegotzi jaunak (EH-BILDU) udal aurrekontuaren proiektuari bideratuta aurkeztu ziren hainbat zuzenketaren laburpena egin du, honako alderdi hauei lotuak:

- ✓ Herritarra integrazteko laguntza, Udalak antolatutako kirol- eta kultura-jarduerak baliabide ekonomiko eskasak dituzten herritarrentzat erraztea eta finantzatzea ahalbidetzen duena.
- ✓ Ondare historikoa zabaltzeko partida berria sortzea proposatu zuten, erabili ahal ziren azpiegitura txikiez hornituz.
- ✓ “GAINDEGIA” partida berria sortzea, Euskal Herriko ekonomia eta gizarteari buruzko ezagutza eta iritzia sustatzeko behatokiari laguntzeko, bere agente ekonomiko eta sozialen artean.
- ✓ Familiek euskara ikasteko diru-laguntzaren partida igotzea, euskararen ezagutzarako sarbidea herritarren eskubidea delako, eta horregatik unibertsala izan behar du.
- ✓ Bide-sarearen proiektuari lotutako partida igotzea, Airako herriak biltzen dituzten bideak eta bidezidorrak berreskuratzeko, azken horiek erabili eta gozatzeko helburuarekin.
- ✓ “BEHATOKIA” partida berria sortzea, herritarren eskubide linguistikoak zaintzea beharrezko zerbitzua dela uste dutelako.
- ✓ Geltokiko aparkalekua handitzeari bideratutako partida sortzea, garraio publikoaren erabilera sustatzeko helburuarekin.

Lauren Uria Peña zinegotzi jaunak (EH-BILDU) honako hau adierazten jarraitu du: zuzenketa horietatik baten bat onartu dutela, baina euskara ikasi eta hobetzeko laguntzei dagokienez, diru-laguntzaren %100era heltzeko aukera dagoela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du horretarako lehenik Euskara ikasteko eta hobetzeko laguntzak ematea arautzen duen ordenantza aldatu behar dela.

Administrazio-batzarren inguruan, alkate jaunak oroitarazi du banaketa irizpideak ezartzeko Osoko Bilkuraren erabakia dagoela, eta azken hori aurretik aldatu beharko litzatekeela.

Lauren Uria Peña zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du bere taldea aurrekontuei buruzko bozketan abstenituko dela, proiektu batzuk beharrezkoak direla uste dutelako, adibidez Barrena kalekoa, eta hori sustatzen aurreko gobernu taldeak ere parte hartu zuen.

Bestalde, Lauren Uria Peña zinegotzi jaunak (EH-BILDU) adierazi du uste duela gobernuak herritarrek parte hartzeko prozesua deritzona hobetu behar dela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du parte hartzea iritzia ematea dela, eta hori dela herritarrei eskaintzen zaiena.

Lauren Uria Peña zinegotzi jaunak (EH-BILDU) errepikatu du oso berandu dela aurrekontuak aurkezteko, eta ez direla operatibo egongo irailera arte; hortaz, soberakinari kargu eginez ekiten ari dira. Gehitu du Informazio Batzordean eskatu zela administrazio-batzordeetarako diru-laguntzen kontzeptuak emateko.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du helaraziko zaiela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) errepikatu du, aurrekontuak aurkeztean berandutzeari buruz, haiek ere lehenago ekarri nahi zituztela, baina egoera hau idazkaritzako titularraren aldaketari zor zaiola.

Barrena kalearen proiektuaren inguruan, Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du egia dela aurreko gobernu taldeak jabearekin elkarriketak izan zituela, baina ortu batzuk instalatzeko prozesu bati buruz, auzokoek premiazkoa ikusten ez zutena, Luiaondoko batzarrak premia handiagoko beharrak dituelako.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du hori lehenengo proposamena izan zela, baina ondoren negoziazioa egin zela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) esan du, Lauren Uria Peña zinegotzi jaunak (EH-BLDU) adierazitako parte hartzeko prozesuko hutsei buruz, herritarren parte-hartzea sustatzeko dinamikarekin hasten ari dela, eta ez dakiela lehen egiten zen, baina, guztia bezala, praktikarekin hobetzen joango dela.

Aurkeztutako aurrekontuaren inguruan Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du partida batzuk handitzen ari direla, herritarrentzako zerbitzuak eta udal langileen segurtasuna hobetzen ari direla, igerilekua ere hobetu dela, Luiaondoko pista gorriaren proiektua aurkeztu dutela, etab. Halaber, esan du eskertzen dituela gainontzeko alderdi politikoei egindako ekarpenak.

Lauren Uria Peña zinegotzi jaunak (EH-BILDU) Barrena kalearen proiektuaren inguruan aditzera eman du hasiera batean ortuak egiteko planteatu zutela, nahi zutena zelako orubeak kontserbatzeko konponbidea edukitzea, baina horren ostean auzoarentzako beharrezko ekipamenduari buruz hitz egiten hasi zirela. Parte-hartzea aurrera eramateko moduaren inguruan esan du parte hartzeko prozesua adostu beharko litzatekeela.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du bere garaian "Casa Patxita"-rekin egin zutena egin dutela oraingoa.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du hobekuntza ahalmena edozein alderditan absolutua dela.

Esku-hartzeak bukatu dira eta korporazioko kideek, EAJ-PNV talde politikoko bost kideren eta AIARA BATUZ talde politikoko bi kideren aldeko botoarekin, eta EH-BILDU talde politikotik bertaratu diren hiru kideen abstentzioarekin, **HONAKO HAU ADOSTU DUTE:**

**Lehenegoa.-** Hasiara batean onestea korporazio honen aurrekontu orokorra 2018 ekitaldirako. Horren zenbatekoa 2.228.193,63 eurokoa da, bai sarreraren eta bai gastuen egoeran, eta hau da bere laburpena kapituluka:

KAPITULUA K	HASIERAKO AURREIKUSPENAK SARRERAK KAPITULUKA	ZENBATEKOA €
	<b>A) ERAGIKETA ARRUNTAK</b>	<b>2.228.193,63 €</b>
1	ZERGA ZUZENAK.....	679.502,40 €
2	ZEHARKAKO..... ZERGAK	64.000,00 €
3	TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK.....	223.164,54 €
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK.....	1.244.386,74 €
5	ONDARE-SARRERAK	17.139,95 €
	<b>B) KAPITAL ERAGIKETAK</b>	<b>0,00 €</b>

6	BENETAKO INBERTSIOEN BESTERATZEA ETA JARDUKETA URBANISTIKOEN BESTE SARRERA BATZUK.....	0,00 €
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK.....	0,00 €
8	FINANTZA-AKTIBOAK .....	0,00 €
9	FINANTZA-PASIBOAK.....	0,00 €
	<b>SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA.....</b>	<b>2.228.193,63 €</b>

KAPITULUAK	HASIERAKO KREDITAUK GASTUAK KAPITULUKA	ZENBATEKOA €
	<b>A) ERAGIKETA ARRUNTAK</b>	<b>1.977.999,98 €</b>
1	LANGILEEN GASTUAK.....	572.986,82 €
2	ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN EROSKETA	746.333,96 €
3	FINANTZA-GASTUAK.....	2.000,00 €
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK.....	651.179,20 €
5	KREDITU OROKORRA ETA BESTELAKO USTEKABEAK.....	5.500,00 €
	<b>B) KAPITAL ERAGIKETAK</b>	<b>250.193,65 €</b>
6	BENETAKO INBERTSIOAK.....	180.193,65 €
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK.....	70.000,00 €
8	FINANTZA-AKTIBOAK .....	0,00 €
9	FINANTZA-PASIBOAK.....	0,00 €
	<b>GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA.....</b>	<b>2.228.193,63 €</b>

**Bigarrena.-** Onestea aurrekontuaren espedientean dagoen Aurrekontua Betearazteko Udal Araua.

**Hirugarrena.-** Onestea lanpostu-zerrenda eta aurrekontuarekin datozen eta espedientean dauden gainerako eranskinak.

**Laugarrena.-** Onestea 2017-2018ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa, 2018 urteari dagozkion diru-laguntzekin.

**Bosgarrena.-** Espediente hori jendaurrean jartzea, hamabost egun balioduneko epean, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko, 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan zehaztutako moduan eta epeetan.

**Seigarrena.-** Aurrekontua behin betiko onartuko da epe horretan ez bada erreklamaziorik aurkezten. Kontrako kasuan, Udaltzak hilabeteko epea izango du horiek ebazteko.

**Zazpigarrena.-** Behin betiko aurrekontua 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluko 3. atalean adierazita dagoen bezala argitaratuko da.

**Zortzigarrena.-** Argitaratzea, behin betiko aurrekontuarekin batera, erakunde honen lanpostu-zerrenda, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 16. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez.

**Bederatzigarrena.-** Bidaltzea, aldi berean, espedientearen kopia bana Arabako Foru Aldundiari eta Arabako Ekonomia eta Ogasun Ordezkaritzari.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du bederatziak eta bost minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezzen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamazortziko uztailaren hamarrean.

O.E.

ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: M<sup>a</sup> Carmen Rojo Pitillas.